

## **COVID-19 DELA ETA, IKASTETXEETAN DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO 10 GILTZA**

COVID 19 pandemiaren eta konfinamenduaren hasieratik eta, horren ondorioz, ikastetxeak itxi zirenetik, irakasleek bere hezkuntza betekizuna, berme guztiz, nola burutu behar zuten zehaztugabetasunari aurre egin behar izan diote. CCOO Irakaskuntzaren Federazioak Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioan zenbait proposamen aurkeztu zituen negoziatzeko; hala nola, telematikoki eskola lana nola burutu eta lan hori egin behar dutenek zein berme izan behar duten.

Aurreko etapetan ikasturte hasiera presentziala izan bada ere, ez ditu konfinamendu egunetan sortutako zalantzak uxatu. Irakasle asko, egunero, telematikoki lan egiteari aurre egin behar izan diote, hezkuntza etapa horretan erdipresentzialitatea dagoelako edo gelak konfinatu behar izan dituztelako.

Telematikoki lan egiteari dagokion guztiari, COVID 19ari eta datu pertsonalei dagozkien irakasleen eskubide eta betebeharrei buruzko zalantzak gaineratzen zaizkio.

FECCOOen Gabinete Tekniko Juridikotik eta Unibertsitatetik kanpoko Irakaskuntza Publikoaren Idazkaritzatik honi buruzko kontsultak jaso ditugu eta zenbait egoera argitu dezaketela uste dugunez, 10 giltzatan laburbildu ditugu.

### **1. Klaseak graba daitezke?**

Klaseen grabaketak irakasgaiaren ingurunean baino ez dira erabili behar. Irakasleek zein ikasleek burutzen den datu prozesatzearen berri jakin behar dutelarik.

Baldin eta ikasleren batek, bere kabuz, klasea grabatu nahi badu, gelakide guztien baimena zehatza beharko du. Gomendagarri da, galderak eta elkarrizketak kamera abiarazi gabe bideratzea.

### **2. Klaseen grabaketen berria eman behar al da?**

Tratamenduaren baldintza nagusien berri eman behar da, gela birtualerako sarbidean, irakasgaiaren hasieran, saioaren hasiera baino lehenago edo ikasleei bidalitako mezu baten bidez. Klaseak grabatzen dituzten metodologiak erabiltzen direnean, gomendagarri

da argi eta garbi informatzea.

Aldez aurretik, klasearen hasieran, grabatu baino lehen, ikasleei jakinaraziko zaie klasea grabatu egingo dela, hauek bere kamera edo mikrofonoa desaktiba dezaketen. Ikasleei jakinarazi behar zaie hauek bere interakzio gunea egoki presta dezaten, familako intimitatea zaindu ahal izateko.

Klaseko parte-hartzeak eskola jardueraren zati dira, berdin-berdin, klase presentzialak bailiran. Grabaketak ezin dira beste helburuetarako erabili.

### **3. Klase grabatuak argitara daitezke?**

Klaseen grabaketak hedatu edo zabaltzeak datuen babesaren funtsezko eskubidea, norbere irudiaren eskubidea eta propietate intelektuaen eskubidea erasotzen ditu.

Grabatutako klaseak zabaltzea debekatuta dago eta egilearentzat erantzukizunak ditu berekin: disziplinazkoa, administratiboa eta zibila.

Irakasleak sortutako materiala beste heziketa helburuetarako berrerabil dezake baina bere ahotsa eta irudia azaltzen denean baino ez; inoiz ere, ikasleena edo beste norbaitena azaltzen denean.

### **4. Klase *on line* batean ikasleren bat grabatua izatearen aurka egon daiteke?**

Ikasle batek grabatua izatearen aurkako eskubidea erabil dezake, aurka egote hori honakoan justifikatzen badu: grabaketan etxekoren bat azaldu dela edo *on line* irakastearekin zerikusia ez duten irudiak agertu badira.

### **5. *Webcam*-aren erabilera ikaslearen bizitza pribatuari eta familiarrari eta gelakideei eragin diezaie?**

Ebaluazio birtualeko proba bat burutzean irudiak hartzeak, ezuztean bada ere, bizitza pribatu eta familiarrean eragin dezake. Horregatik, dibertsitate funtzionalagatiko beharrezko egokitzapena kontuan hartuta, komenigarri da honen berri ematea: \* Zein motatakoak diren hartutako irudiak, zehatz-mehatz xedatuz *webcamaren* eragin eremua. Bereziki, haren norabideak ikasleak bere jarduera garatzen duen esparruaren zati baten irudiak hartzea dakarrenean.

- Ikaslearen bizikide direnei guzti horretaz informatzeko beharra eta, proba dirauen bitartean, esparru horretara ez agertzea gomendatzea.
- Ebaluazio prozesuan, beste pertsonen irudiak, baimenik gabe, hartzeko debekua, irakasleek zein beste ikasleek.

## **6. Ebaluazio proba bat egitean, ikasleren bat grabatua izatearen aurka egon daiteke?**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 12tik 23ra bitarteko artikuluen arabera, ikaslea zein irakaslea datuak babesteko eskubidearen legeko titularrak dira, hau da: gardentasuna, informazioa, sarbidea, zuzenketa, aurkaritza, portabilitatea eta tratamenduaren mugaketa. Hala ere, ebaluazio baten mende dagoen proba baten tratamenduaren aurka egoteari uko egin behar zaio, berari eusteko betebeharra nagusitu behar baita. Dena den, tratamenduaren aurka egoteko arrazoiak kontuan hartu beharko liriateke, esaterako, dibertsitate funtzionalari edo genero bortzakeriari loturiko zirkunstantzietatik datozenetan.

## **7. Ikastetxeetako zuzendaritzek erabil al dezakete honako informazioa: koronabirusak beren langileak kutsatu dituen ala ez?**

Osasunaren data, bizi-interesaren klausula gisa, pertsona interesatuaren gainean ez ezik, beste pertsonengan ere proiektatzen da, ikastetxearen ingurua barne. Lan Arriskuen Prebentziorako Legeak, langileak behartzen ditu, beraietzat eta lankideentzat segurtasun eta osasunerako arriskurik dakarren edozein egoeraren berri ematera; halaber, nagusiak behartzen ditu, mende dituzten langileen osasuna babesteko; hauei, ezinbesteko osasun-azterketak egin dakizkieke, bere osasun egoerak beraietzat, beste langileentzat edo enpresarekin zerikusia duten pertsonentzat arriskua sortu badezakete, langileen ordezkariak txostena egin ondoren eta Lan Arriskuen Prebentziorako Legearen 22. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**8. Ikastetxe bateko zuzendaritzak eman ditzake osasun agintariei COVID19ak kutsatutako langileen datuak?**

Administrazio Publiko guztien betebeharra da, are gehiago egungo egoeran, elkarlanean aritzea. Baita ikastetxe itunduak eta pribatuak ere. Horregatik, COVID 19ari dagozkion datu pertsonalak ematea, osasun agintariekin elkarlanean aritzearen seinaleztat jo daiteke eta osasun agintariak eskatutakoaren arabera gauzatuko da.

**9. Langileren bat berrogeialdi prebentiboan egonez gero edo koronabirusak kutsatuta, bere nagusiari horren berri emateko eginbidea al du?**

Lan Arriskuen Prebentziorako Legeak, langilea behartzen du bere nagusi hierarkiko zuzenari, prebentzio eta babes jarduerak burutzeko izendatutako langileei edo, kasuan-kasuan, prebentzio zerbitzura ondorengo honetara: bere ustez, zentzuzko arrazoiengatik, langileen segurtasun eta osasunerako arriskua sor dezkeen edozein egoeraz informatzeko.

**10. Langileak bere telefono pribatuaren zenbakia emateko behartuta al daude?**

Martxoaren 17ko 2020/8 Errege Dekretua-Legearen 5. artikulua, COVID 19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko premiazko neurri bereziak zehazten dituena, telelanari lehentasunezko izaera ematen dio. Hezkuntza Administrazioek beren mende dauden langileei posta elektronikoko helbideak esleitzen dizkiete, beraz, langileekin komunikatzeko beren funtsezko eskubideak gutxien urratzen dituzten baliabide izateak, telefonoa edo posta elektronikoko pertsonala eskatzeari ezezko erantzuna dakarkio, dauden baliabideak nahikotzat jotzen baitira eta, interesatuak hala eskatuta, deien desbideratzea haiei gaineratu zekiekeela.